

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IEKORAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2023ko errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzeko moduan jartzea

lekorako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2023ko errolda behin-behineko onetsi ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egokitzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa epea otsailaren 20tik apirilaren 20ra arte izango da, biak barne.

Ordainketa inolako kreditu erakundetan helbideratu ez duten zergadunek udalak Kutxabanken daukan kontuan ordaindu beharko dute borondatezko epearen barruan.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, lekorako Udalean izapidetuko direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekaruak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

lekora, 2023ko urtarrilaren 17a

Alkate-lehendakaria
RAFAEL FERNÁNDEZ JALÓN